

Año LIII. urtea

132 - 2021

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**e5: euskararen
komunitatearen
garapenerako marko
interpretatibo berria**

Jone Goirigolzarri Garaizar, Inazio Marko, Ibon Manterola

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 132. zk. - 2021

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Euskararen erritmoa neurtzen

Oroitz Jauregi 257

Egiarretako hiru eskuizkribu euskaraz (XVIII.-XIX. mendeen mugan)

Juan Madariaga Orbea, Jose Luis Erdozia Mauleon 279

Hizkuntza-tratamenduak *Dragoi Bolan*: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna

Garbiñe Bereziartua, Beñat Muguruza 319

*Do It Yourself*etik planifikaziora.

Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak

Jone M. Hernández García, Ainara Santamaria Barinagarrementeria 349

Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan.

Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat

Ibon Egaña Etxeberria 375

Oltzako aldaeraren inguruan (1 – Arakilgo azpialdaera)

Koldo Artola 403

e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria

Jone Goirigolzarri Garaizar, Inazio Marko, Ibon Manterola 473

Karmele Jaioren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista:

proposamen metodologiko berritzailea

Gema Lasarte, Andrea Perales-Fernández-de-Gamboa 497

Modalitate-markatzaileak: partikula modalak ote dira euskarazko

partikula modalak?

Sergio Monforte 515

Praktika eleanitzak eta euskara, ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean:

kasu-azterketa bat

Nerea Villabona, Mikel Gartziarena 543

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals 565

e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria

e5: nuevo marco interpretativo para el desarrollo de la comunidad del euskera

e5: a new interpretative framework for the development of the Basque community

Jone Goirigolzarri Garaizar

Deustuko Unibertsitatea

jone.goirigolzarri@deusto.es

<https://orcid.org/0000-0003-1844-2600>

Inazio Marko

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

inazio.marko@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-7005-1960>

Ibon Manterola

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

ibon.manterola@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-8368-3318>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv132.7>

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzari eta lan-taldeari, e5 egitasmoko talde eragileari eta mintegietako parte hartzaileei. Halaber, esker ona adierazi nahi diegu artikulua berrikusleei.

Jasotze data: 2021/07/30. Behin-behineko onartze data: 2021/11/04. Behin betiko onartze data: 2021/11/09.

LABURPENA

Lan honetan «Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen» (e5) egitasmoa aurkeztuko da. e5 bi helburu nagusiren inguruan ardatzu zen: batetik, hurrengo hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea, eta bestetik, euskararen biziberritze prozesua ulertzeko eta garatzeko marko interpretatibo berri bat lantzea. Artikuluan *KOHiKoGa Eredua* (Kapitaletan Oinarritutako Hizkuntz Komunitatearen Garapena) izendatu dugun marko berriaren oinarri teoriko-metodologikoak aurkeztuko ditugu eta e5 egitasmoa nola egikaritu zen azaldu. Azkenik, marko berri hau maila mikroan euskara biziberritzeko tresna egokia dela iradokiko dugu.

Gako hitzak: e5 egitasmoa; hizkuntza komunitatea; komunitatearen kapitalak; arakatzeko apreziatiboa; etorkizuneko eszenarioak.

RESUMEN

Presentamos el proyecto «Construyendo conjuntamente Escenarios Futuros para el Euskera», que tuvo dos objetivos principales: ayudar a configurar la nueva etapa del movimiento a favor del euskera para las próximas décadas, y elaborar un nuevo marco interpretativo para entender y desarrollar el proceso de revitalización del euskera. Presentaremos las bases teórico-metodológicas de este nuevo marco, que hemos denominado *Modelo KOHiKoGa* (acrónimo de desarrollo de la comunidad lingüística en base a los capitales de la comunidad), y explicaremos cómo se ejecutó el proyecto. Finalmente, sugeriremos que este modelo es una herramienta adecuada para la revitalización del euskera a nivel micro.

Palabras clave: proyecto e5; comunidad lingüística; capitales comunitarios; indagación apreciativa; escenarios futuros.

ABSTRACT

This article presents the project «Towards a Joint Construction of Future Scenarios of Basque». The project had two aims: to help shape the new phase of pro-Basque movement for the next decades, and to design a new interpretative framework to comprehend and develop the revitalization process of Basque. We will describe the theoretical and methodological basis of the new framework, which we have named the *KOHiKoGa Model* (acronym for the development of the linguistic community based on community capitals), and will explain how the project was carried out. Finally, we will suggest that this new framework is an appropriate tool for the revitalization of Basque at the micro level.

Keywords: e5 project; linguistic community; community capitals; appreciative inquiry; future scenarios.

1. SARRERA. 2. E5 EGITASMOAREN MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA. 2.1. Euskaraz garatu nahi duen hizkuntza komunitatea. 2.2. Komunitatearen kapitalen eredua. 2.3. Arakatzeko Apreciatiboaren ikuspegia. 3. E5 EGITASMOAREN EGIKARITZEA. 3.1. 4D zikloa. 3.2. Sortutako emaitzen adibide bat. 4. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK. 5. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Eusko Ikaskuntza Euskal Herri osoan diharduen elkargune zientifiko-kulturala da. Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako Forua Aldundiek sortu zuten 1918an, erakundearen irekiera kongresuarekin batera, garaiko euskal gizarteak bizi zituen erronkei erantzun globalak eta bateratzaileak emateko. Industrializazio eta urbanizazio prozesu azkarrek gizarte arazo ugari sortuak zituzten, gizarte egitura eta harremanetan edota euskararen eta euskaltasunaren alorrean, besteak beste. Eusko Ikaskuntzaren sorreran jardun zuten intelektual, profesional, irakasle eta abarrek herrialdea bizi bidegurutze larrian sumatzen zuten. Hala, aurrez aurre zuten mendean loratu zitekeen gizarte, ekonomia eta hizkuntzari orientazio zientifiko eta pragmatikoa eskaini nahi zien, aurrerabidea eta modernizazioa euskal nortasun eta kultura ondarearen babesarekin uztartuz. Sorreraz geroztik, Eusko Ikaskuntzak xede horrekin jardun du ekarpenak egiten euskal gizarteari (Eusko Ikaskuntza, 2018a).

Ehun urteko ibilbidearen ostean, erakundeak 2012tik aurrera aldaketa prozesua abiatu eta bere norabide estrategikoa eguneratzeko hausnarketa prozesuari ekin zion. Hausnarketa horren ondorioz sortutako diseinu berrian, Eusko Ikaskuntzaren jardunbideak sail zientifikoaren egitura gainditu eta erronka estrategikoetan oinarritutako proiektuen arabera egitura hobetsi zuen. Horrela, 2016-2019 urte bitartean burutu zen *Ekinez* egitasmoak diziplina arteko bost lan eta ikerketa arlo finkatu zituen (Eusko Ikaskuntza, 2018a): Gizarte jasagarria, Errealitate soziokulturala, Egitura soziopolitikoa, Eredue sozioekonomikoak, eta, Euskara eta bere etorkizuna, azken hau

Eusko Ikaskuntzaren sorrera garaitik bertatik estrategiko izan dena (Pagola, 2018; Urla, 2019)¹.

Egitura berri hori abiapuntu, Eusko Ikaskuntzak Mendeurreneko Kongresuaren lanketari ekin zion, foro sozialen bidez arlo horietako bakoitzean proiektu espezifiko bat bideratuz, arlokako analisiak egin eta etorkizuneko erronkei begira balizko agertokiak aztertze eta proposamenak mahai gaineratzeko xedearekin. Asmoa zen, lan horien emaitzetatik jasotakoarekin, *Euskal Herriko Lurralde(ar)en Liburu Zuria* osatzea (Eusko Ikaskuntza, 2018d) eta Mendeurreneko XVIII. Kongresuan aurkeztea.

Arlo horietako bat, esan bezala, euskararen etorkizunarekin zerikusia zuena izan zen, eta hor kokatzen da hasiera batean *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak* eta gerora *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)* izena hartu zuen proiektua. Euskal Herriko lurralde guztietako hainbat aditu, unibertsitateko ikerlari, euskalgintzako ordezkari eta aholkularitza enpresetako kideekin 2016ko hasieran proiektuaren talde eragilea osatu zen, jasotako enkarguari erantzuteko, hau da, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenaren prozesuaren eskeman proiektua diseinatzea eta garatzea, eta, XVIII. Kongresuari begira Liburu Zurirako ekarpena egitea.

Proiektua bi ziklo nagusitan garatu zen. Lehena, proiektuaren ko-eraikitze eta diseinu zikloa, talde eragilean burutu zena; eta bigarrena, gauzatze zikloa, tailer parte hartzaileetan balidatu eta garatu zena. Lehen zikloaren helburua proiektua definitzea eta diseinatzea izan zen talde eragilearen eskutik. Horretarako, taldean ko-kokatzeko eta ko-eraikitze hausnarketa eta sorkuntza prozesu bat gauzatu zen *Design Thinking* (Brenner & Uebernickel, 2016; Brown & Wyatt, 2010; IDEO, d. g.; P  ch   et al., 2013; Zuberogoitia et al., 2013) metodologiaren erreferentzia hartuz eta urrats hauek bideratuz: ulertu, definitu, prototipatu eta balidatu.

Ulertze urratsean zehar, talde eragilearen lehen lana euskalgintzaren testuinguruaren irakurketa egitea izan zen, horren baitan Eusko Ikaskuntzaren eginkizuna eta ekarpena kokatzeko. Analisi horretan kontzeptu bat definitu zen euskalgintzaren uneko testuingurua azaltzeko: Krisi Aktiboa. Kontzeptu honen bitartez adierazi nahi zen euskararen biziberritzean eta, bereziki, euskalgintzaren garapenean ordura arteko jardun moldeetan krisia antzematen zela, baina, aldi berean, ugari zirela ziklo berri bati begira bideratzen ari ziren hausnarketak eta ekimenak, eragilean aldetik, gizarte erakundeetan edota maila instituzionalean (Irizar, 2019).

1 Urlaren (2019) esanetan, euskara hizkuntza gisa ulertu eta aztertze ikuspegi modernoa 1918an abiatu zen, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuarekin batera. Erakundearen lehen kongresuetan (1918, 1922) luze eztabaidatu zen gizarte testuinguru berriaren euskararen etorkizuna ziurtatzeko euskal folklorea eta tradizioak goraiatzeko ez zela nahikoa; alegia, bere etorkizuna bermatzeko ezagutza modu eta galdera berriak behar zirela: zer jende motak hitz egiten du, non, zer behar da euskara goi mailako hezkuntza erakundeetan barneratzeko, etab. Hala, gaur egun emantzat jotzen dugun hizkuntzaren ikuspegi soziologikoari eta planifikagarriari –hizkuntza planifikatu daitekeen objektua– bidea zabaldu zitzaion.

Testuinguru konplexu eta dinamiko horretan, euskararen biziberritzearekin lotutako beste gizarte dinamikekiko osagarritasuna eta berrikuntza finkatu ziren oinarrizko irizpide gisa, Eusko Ikaskuntzaren eginkizuna kokatu eta proiektua bera fokalizatzen. Xede argi bat definituz, alegia, euskal(gizarte)gintzaren etorkizuneko aroa konfiguratzeko laguntzea, ezagutzatik, marko interpretatibo berri bat landuz *euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalen* analisietan oinarritua.

Definitze urratsa talde eragilearen ko-eraikitze prozesuaren segidako urratsa izan zen. Talde dinamika eta teknika ezberdinak erabili ziren proiektuaren definizioaren eta izatearen argitze eta zehazte bidean, hala nola, Zer-Zergatik-Zertarako analisia edota kapitalen inguruko hausnarketarako ideia-jasa mapeatuak. Analisi horretan kontzeptu hauek definitu ziren proiektuaren indar-idea nagusi gisa: komunitatea, konplexutasuna, polizentrismoa eta sinkronizazioa (Marko, 2019). Halaber, eta jarritako helburu nagusiari begira, proiektuaren helburu espezifikoak zehaztu ziren:

- Euskaraz garatzeko komunitatearen kapitalak identifikatzea eta zehaztea, eta kapital horien maila anitzeko analisirako prozedura metodologikoa sortzea.
- Egungo kapitalen lehen mapeo pilotua bideratzea.
- Komunitatearen kapitalen mapeoaren irakurketan oinarrituta, euskararekin etorkizunerako desiratutako eszenario posible ezberdinen konstelazioa irudikatzea eta azaltzea.
- Desiratutako eszenarioen konstelazioa eraikitze, eta tokiko eta osotasuneko irakurketak gurutzatuz, ezagutza alorreko eta praktika mailako ekarpenak jasotzea eta norabidesaren arkitektura irudikatzea.

Azkenik, prototipatze eta balidatze urratsean, proiektua egikaritzeari begira, metodologia eta prozedura zehaztu ziren, egokitutako eredu metodologiko gisa prototipatuz. Komunitatearen Kapitalen Markoa (Community Capitals Framework) eta Arakatzeko Apreziatiboa (Appreciative Inquiry) eruedetan oinarrituta, proiektuaren diseinua eraiki zen, gerora *KOHikoGa* (Kapitaletan Oinarritutako Hizkuntz Komunitatearen Garapena) izena eman zaion eredu egituratuz.

Prototipoa eskuetan, proiektuaren gauzatze zikloari ekin zitzaion gonbidatuak izan ziren Eusko Ikaskuntzako eta euskalgintza zabaleko hainbat eragileekin burutu ziren tailer partehartzaile erako hiru tailerren bidez: Tailer Apreziatiboa, Sorkuntza Tailerra eta Diseinu Tailerra. Guztira ia hirurehun pertsonak hartu zuen parte tailer hauetan. Lehen eta bigarren tailerrak proposamenaren kontrastatzea egin eta berau balidatzeko ere profitatu ziren. Proiektuari itxiera emateko laugarren mintegi berezi bat ere antolatu zen, Kongresu itxurakoa. Bertan, aurretik egindakoaren berri eman, atalkako ekarpen kualifikatuen komunikazioak bildu eta, gerora Liburu Zurian jasoko zen azken Adierazpena onetsi ziren.

Artikulu honetan saiatuko gara erakusten e5 proiektuak hainbat berrikuntza eskaintzen dituela euskararen biziberritze prozesua sustatzeko plangintzen esparruan eta

euskalgintzaren gaur egungo testuinguruan. Batetik, egitasmoaren fokua ez zen euskararen eta bere biziberritze prozesuan jarri, euskaraz garatu nahi duen komunitatean baizik. Bestetik, hizkuntza komunitatearen garapenerako komunitatearen kapitalen analisisan oinarritutako marko interpretatibo berria proposatu zen. Eta azkenik, analisi hori burutzeko eredu metodologiko berritzailea erabili zen: sistemaren muin positiboan oinarritzen den Arakatzeko Apreziatiboa. Hurrengo atalean egitasmoaren marko teoriko-metodologikoa azalduko dugu, eta hirugarren atalean, berriz, egitasmoa nola egikaritu zen erakutsiko dugu. Eztabaidaren eta ondorioen atalarekin itxiko dugu artikulua.

2. E5 EGITASMOAREN MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA

Hizkuntza gutxituak biziberritzeko ahaleginen ezaugarrietako bat hizkuntzaren bizitasuna eta honen zer-nolakoa neurtuko duten azterlanak burutzea izan da. Sarritan, azterketa horien helburua hizkuntzaren egoera dokumentatzea ez eze, herritarrek sentsibilizatzea, hiztunen parte hartzea sustatzea eta biziberritzearen aldeko diskurtso partekatua sortzea ere izan dira, alegia, asmo politiko sakona izan dute. Hauxe izan da euskararen kasua ere (Urla, 2012; Urla & Burdick, 2018). Euskal soziolinguistikak bere sorrera unetik izan du xede administrazio publikoetatik zein gizarte zibil antolatutik bideratutako politika eta estrategia eraginkorrek garatzeko ezagutza sortzea. Hala, euskarari buruzko azterketen luzerako begiradak iradokitzen du ikerkuntzaren, hizkuntza plangintzaren eta gizarte mobilizazioaren arteko lotura estua euskal hizkuntza kulturaren funtsezko ezaugarria izan dela (Ortega & Manterola, argitaratzeaz). Ildo horretan, biziberritze prozesuari ekarpen sendoa egiteko, azterlanak euskal hizkuntza komunitatearen bilakaerara eta uanean uneko datu beharrezanetara egokitu dira. e5 proiektua ere tradizio horren parte da, euskararen biziberritzeak eta euskalgintzak egun bizi dituzten erronkei erantzunak bilatzeko beste ahalegin bat berrikuntza teoriko-metodologiko baten eskutik. Hurrengo lerroetan egitasmoaren oinarri teoriko-metodologikoak aurkeztuko ditugu hiru ataletan banatuta: euskaraz garatu nahi duen hizkuntza komunitatea, Komunitatearen Kapitalen eredia eta Arakatzeko Apreziatiboaren ikuspegia, hurrenez hurren.

2.1. Euskaraz garatu nahi duen hizkuntza komunitatea

e5 egitasmoaren arduretako bat euskararen biziberritzea eta etorkizun oparoa izan zen arren, fokua hizkuntzan jarri ordez, komunitatean, euskaraz garatu nahi duen komunitatean, eta bere etorkizunean jarri zuen. Komunitatea hamaika modu ezberdinetan definitu izan da. Termino geografikoetan, kokapen bati egiten dio erreferentzia (leku-komunitateak); gizarte terminoetan, berriz, interes komun ala lotura bat duten norbanakoen bildumari, dela gertutasunean dela bereizita (interes-komunitatea). Ildo horretan, Mattessichék eta Monseyk (2004) honela definitu dute komunitatea: geografikoki definitutako eremu baten barruan bizi diren pertsonak dira, elkarrekin eta bizi diren lekuarekin lotura sozialak eta psikologikoak dituztenak.

Hizkuntza komunitatea ere kontzeptu konplexu eta gatazkatsua da bere kontzepzioari dagokionean. Definizio gehienak hiru ezaugarri nagusiren arabera aldatzen

dira: hizkuntza (hizkuntza komunitatea hizkuntza jakin bat –edo gehiago– erabiltzen duen giza taldea da), oinarri sozio-geografikoa (eremu geografiko komun bat partekatzen du) eta arau soziolinguistikoak (hizkuntza erabiltzeko arau linguistiko berberak konpartitzen ditu eta horien gaineko balorazio berdina burutzen du) (Berruto, 1998 apud Zarraga et al., 2010). Edonola ere, momentu historiko epistemologikoaren arabera hizkuntza komunitatearen interpretazioa aldatuz joan da (Zarraga et al., 2010). Hala, hizkuntzarekin gertatu bezala, *hizkuntza komunitatearen* nozio klasikoak entitate homogeneo eta mugatu gisa irudikatu izan du, praktika soziolinguistikoek berezko duten aniztasuna eta konplexutasuna ezkutatzuz (Urla, 2019). Horixe berori euskararen ikerketaren kasuan ere gertatu da, non kategoria dikotomikoak erabili izan diren hizkuntza egoerak eta prozesuak definitzeko eta sailkatzeko (Kasares, 2014). Joera honekin apurtzeko asmoz, 2008an Jone Miren Hernándezek (2008) euskararen egungo egoerara hobeto egokituko den kontzeptualizazio berri baten premia aldarrikatu zuen hizkuntza antropologiaren ikuspegitik. Bere hitzetan, «XXI. mendean hizkuntza, hiztuna eta komunitatearen definizioak ezin dira berdin mantendu. Identitatearen osaketa, komunitatearen osaketa eta hizkuntzen balioa erabat aldatu dira guztiz globalizatu den mundu honetan. Ezin dugu jarraitu hainbeste aldatu den errealtatea betiko betaurrekoekin begiratzen» (Hernández, 2008, 41. or.). Izan ere, biziberritze prozesua abiatuz geroztik, euskararen presentziak zabalkunde garrantzitsua bizi izan du, esparru berrietara iritsi da eta euskal hiztunen profilak ere ugaritu egin dira (Ortega et al., 2016). Hala, pentsa dezakegu hizkuntzarekiko esperientziak eta atxikimenduak ere aldatuz eta ugarituz joan direla.

Jone Miren Hernándezen proposamena bere eginez, Kasaresek (2014, 2017) hizkuntza komunitatearen ikuspegi homogeneizatzailea baztertu eta hizkuntzan guztiz ardatzu gabeko hizkuntza komunitatearen ikuspegia lehenesteko beharrezana aldarrikatzen du; «komunitate» deituriko giza-taldeko kide guztiek ez baitute euskara modu berean partekatzen. Alegia, ez dago euskararekiko harreman «zurrun eta mugiezirik» (Kasares, 2014, 106. or.), kide guztiei aurrez emana eta denek berdin bere egin dutena. Euskara komunitateko beste kideekiko elkarrekintza jardueretarako baliabidea da; eta jarduera den aldetik, kide bakoitzak, bere subjektibotasunetik abiatuta, askotariko gaitasun, praktika eta atxikimenduak garatzen ditu. Hala, hizkuntza komunitatearen kontzeptzio zabal eta ireki hori izan zen e5 proiektuan abiapuntu moduan hartu zena.

Ildo berean, hizkuntza komunitatea irudikatzerakoan maila sinbolikoak ere zentralitate handia bereganatu dezake. Horrela gertatu da euskal komunitatearen kasuan, non Euskal Herriko biztanleek beren burua definitzen duten moduari garrantzia handia eman zaion. Hala, Jausorok et al.-ek (1998) «euskararen atxikimendu komunitateaz» hitz egin dute. Talde horretan leudeke, besteak beste, euskaraz aritzeko gaitasuna izan gabe, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera agertzen duten erdaldunak. Esaterako, zonalde erdaldunetan ikastolak eta gau eskolak sortu eta sustatu dituzten erdal hiztunak. e5 proiektuak ikuspegi hori egin zuen bere, euskaraz garatzen den komunitatean oinarritu beharrean, euskaraz garatu nahi duen komunitate zabalagoan arreta jarritz. Hortaz, proiektuaren talde eragileak honela definitu zuen euskaraz garatu nahi duen komunitatea: bere gizarte garapenerako eta sozializatorako perspektiban, lurraldeko hizkuntzarekiko (euskararekiko) identifikazio,

sentimendu, jarrera eta portaera aktibo, positibo eta askotarikoak partekatzen dituen komunitatea (Talde eragilea, 2017), hau da, hizkuntza komunitatea zentzu zabalean ulertuta.

2.2. Komunitatearen kapitalen eredua

Garapen komunitarioak komunitate sendoagoak eta pertsonen arteko lotura sozial eta psikologiko indartsuak garatzeko funtzioa hartzen du bere gain. Goian aipatutako moduan, e5 egitasmoan etorkizunari begira indartu eta sendotu nahi den komunitatea euskaraz garatu nahi duen hizkuntza komunitatea izan zen, egunerokoan gizarte mailan hizkuntza horretan bizitzeko aukera gehiago izateko.

Komunitatearen garapenari ekiteko ikuspegi desberdinak daude. Ikuspegi konbenzional edo tradizionala komunitatearen arazoak eta beharrak identifikatzean datza, hauei konponbidea emateko. Beste ikuspegi bat da aktiboetan oinarritutako garapen komunitarioa. Bigarren ikuspegi hori ohiko ikuspegiaren ifrentzua dela esan daiteke, gabezietan oinarritu beharrean gaitasunetan jartzen baitu arreta. Begirada indar-guineetan jartzeak komunitatearen ikuspegi baikorragoa izaten lagundu dezake. Izan ere, komunitateak dituen alderdi positiboak azpimarratzen ditu eta aktibo horiek are gehiago garatzeko lan egiten du. Gainera, aktibo komunitarioetan arreta jartzeak elur bola efektua sortu ohi du, komunitateko beste eremuetan ere eragin positiboa sortuz (Haines, 2009).

Aktiboetan oinarritutako garapen komunitarioaren ildoan (ABCD, ingelesez Asset Based Community Development, Kretzmann & McKnight, 1993), komunitatearen kapitalen eredua daukagu, e5 egitasmoak bere egin zuena. Eredua hau Iowa State Universityko Cornelia Florak eta Jan Florak (2008) garatutako ikuspegia da. Komunitatearen kapitalen eredua ikuspuntu berri bat eskaintzen du komunitatearen aldaketa holistikoak eta garapen komunitarioa eta ekonomikoko ahaleginak sistemen ikuspegitik aztertzeko. Ikuspegi honen oinarrian dago komunitateek aktiboak dituztela (Flora et al., 2004). Testuinguru ekonomiko batean, aktiboak kapital formak izan daitezke, hala nola jabetza, akzio eta bonuak zein esku dirua. Komunitatearen ikuspegitik, aktiboak kapital mota gisa ere ikus daitezke. Florak et al.-ek honela definitzen dute kapitala: «baliabide gehigarriak sortzeko gai den edozein baliabide» (2004, 165. or.). Baliabide edo aktibo horiek baliabide berriak sortzeko inbertitzen direnean kapital bihurtzen dira. Hala, komunitatearen kapitalak aktibotzat jo daitezke bizitza komunitarioaren esparru guztietan. Kapitalak ukigarriak (eraikinak, dirua, eta abar) zein ukiezinak (eragin politikoa, lidergo ahalmena, elkartasunean oinarritutako gizarte arauak, eta abar) izan daitezke.

Komunitatearen kapital motak eta kopurua bereizterako orduan ezberdintasunak daude autoreen artean. Ferguson-ek eta Dickens-ek (1999) bost komunitate kapital mota bereizten dituzte: kapital fisikoa, giza kapitala, soziala, finantzarioa eta politikoa. Green-ek eta Haines-ek (2007), berriz, zazpi: fisikoa, giza kapitala, soziala, finantzarioa, ingurumen kapitala, kapital kulturala eta politikoa. Raineyk et al.-ek (2003), aldiz, hiru mota bereizten dituzte: giza kapitala, kapital publikoa (fisikoa) eta

kapital soziala. e5 egitasmoan, Emeryren et al.-en (2006) proposamena egokituz, sei kapital mota ezberdinu ziren, euskal komunitatearen garapenari begira giltzarri izan daitezkelakoan: giza kapitala, soziala, kulturala, politikoa, azpi-egiturazkoa eta ekonomikoa. Edonola ere, kapital moten eta bakoitzaren garrantziaren inguruan eztabaida egon daitekeen arren, Hainesen (2009) hitzetan, garrantzitsuena zera da: komunitateak dituen aktibo eta kapitalak identifikatu egin daitezkeela.

Komunitatearen kapitalen ereduaren arabera aktibo eta kapitalak inbertitu, gastatu zein gorde egin daitezke; eta erabili ezean narriatu ere egin daitezke komunitatea behe-ranzko joeran jarritz (Emery et al., 2006). Berriz, kapitaletan inbertitu zein esku hartuta komunitatearen luzera begirako ongizatea sustatu daiteke (Jacobs, 2011). Komunitate indartsu eta erresilienteak kapital desberdinen arteko oreka mantentzen saiatzen dira. Izan ere, komunitateek kapital jakinetan larregizko enfasia egiten badute, gainontzeko kapitalen hazkundea eten dezakete eta komunitatearen ongizate orokorra kolokan jarri (Beaulieu, 2014). Aldi berean, komunitatearen kapitalak identifikatu eta hauen *stocka* ugaritzeak espiral hazkorraren efektua sortzen du, kapitalak elkar elikatzen hasten baitira. Hala, kapital batean aldaketa positiboa bilatzeak beste kapitaletan ere hobekuntza aukerak sor ditzake (Emery & Flora, 2006). Ikuspegi honetatik abiatuz, e5 egitasmoak euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalak eta aktiboak identifikatzeko egin-kizuna hartu zuen beregain, kapital eta aktiboen artean dauden edo egon daitezkeen sinergiak ere identifikatuz, espiral hazkorraren norabidean kokatuz, hizkuntza komunitatea indarberritzean aurrerapausoak emateko. Euskal komunitatearen kapital eta aktiboen azterketa burutzeko e5 proiektuan Arakatzeko Apreziatiboaren metodologia erabili da, hurrengo atalean azalduko dugun moduan.

2.3. Arakatzeko Apreziatiboaren ikuspegia

Arakatzeko Apreziatiboaren eredu korporazioen eraginkortasuna sustatzeko ikuspegi moduan sortu zen; azken hamarkadetan, baina, aldaketa positiboa bideratzeko filosofia eta praktika orokor gisa garatu da, komunitate plangintzarako bereziki aproposa (Whitney & Trosten-Bloom, 2010). Hala, mota askotako komunitateek (hiriak, auzoak, erlijio komunitateak, komunitate profesionalak, eta abarrek) erabili izan dute, elkarrekin etorkizuneko ikuspegiak garatu eta komunitatearen epe luzerako norabidea antolatze, komunitatearen baitako askotariko kolektiboen artean zubiak eraikitze, zein etorkizun iraunkorra sustatuko duten programa eta politikak diseinatze.


Arakatzeko Apreziatiboa iraultza positiborako gonbita da, giza sistemek beren errendimendu onenean funtzionatzen dutenean eman dezaketena aztertzea du helburu (Whitney & Trosten-Bloom, 2010). Arakatzeko Apreziatiboa zer den ulertzeko bi hitzen esanahia kontuan hartzea erabilgarria da. *Apreziatiboa* baliozpenarekin, onarpenarekin eta esker onarekin lotua dago; *arakatzea*, berriz, esploratze eta aurkikuntzarekin (Whitney & Trosten-Bloom, 2010). Aldaketari bideratutako beste hainbat metodologiak ez bezala, Arakatzeko Apreziatiboak ez du kontuan hartzen gabezietan oinarritutako ikuspegia. Aitzitik, ekintza, jarduera zein prozesuek erakundeak edo komunitateak haien onenean aztertzen dituzte, dela iraganean dela orainean dela etorkizunean.

Horrela, Komunitatearen Kapitalen ereduak egiten duen antzera, Arakatze Apreziatiboak gabezietan oinarritutako ikuspegitik ikuspegi positiborako saltoa egiteko gonbita da. Alegia, gatazka, arazo edo estres kontuak alde batera utzi ez arren, ez ditu erabiltzen analisi edo ekintza oinarri gisa (Cooperrider & Whitney, 2005).

Arakatze Apreziatiboak gizabanakoaren eta kolektiboaren indarra eta potentziala askatzen ditu, funtsezko sei baldintza sortuz. Whitneyk eta Trosten-Bloomek (2010) baldintzok «sei askatasunak» (*six freedoms*) moduan izendatu izan dituzte, behin askatuz gero geldiezin bihurtzen direnak. Hona hemen sei askatasunak:

- Ezagutua izateko askatasuna. Askotan, lan inguruetan pertsonak gizaki moduan baino, betetzen duten rolaren arabera harremantzen dira. Arakatze Apreziatiboak despertsonalizazio ziklo hori eteten du eta pertsonen benetan elkar ezagutzeko aukera eskaintzen die, gizabanako bakar gisa eta harreman sarearen partaide moduan.
- Entzuna izateko askatasuna. Bestela ahaztuta eta ahotsik gabe sentituko liratekeen pertsonen gonbita egiten zaie gerora erakunde edota komunitatean praktikan jarriko diren informazio, ideia eta berrikuntzak aurkeztera. Prozesu horretan zeihar pertsonak entzunak, aitortuak eta baloratuak sentitzen dira.
- Komunitatean amesteko askatasuna. Gaurko mundu konplexuan, lidergo ameslariak esan nahi du pertsonen ametsak askatzea erakunde zein komunitateko maila guztietan. Erakundeak leku seguru gisa sortzea dakar, non pertsona talde handi eta askotarikoek amestu eta ametsok partekatzen dituzten elkarren arteko elkarriketetan.
- Ekarpina egitea erabakitzeke askatasuna. Arakatze Apreziatiboak ingurune bat ezartzen du, non pertsonen libreki aukera dezaketen ekarpenak egitea. Pertsonen proiektu baten parte hartzea aukeratzen dutenean eta beste batzuekin proiektu hori egiteko konpromisoa hartzen dutenean, sortzaile eta ausartak bihurtzen dira.
- Babesarekin ekiteko askatasuna. Pertsonen dakitenean ingurukoak beren lanaz arduratzen direla eta lankidetzan aritzeko irrikaz daudela, esperimentatzeko, berrietzeko eta ikasteko seguru sentitzen dira, erronkak onartzera bultzatzen beren onena emanez.
- Baikorra izateko askatasuna. Arakatze Apreziatiboak baimena ematen die pertsonen baikor sentitu eta jokatzeko eta haien lan-esperientziez harro egoteko. Modu horretan ezkortasun korrante kolektiboak gainditu ohi dira.

Arakatze Apreziatiboaren metodologia 4D zikloaren bidez gauzatu ohi da, ingelesezko siglak jarraituz: *Discovery* (Jabetze), *Dream* (Ameste), *Design* (Diseinu), *Destiny* (Eraikitze) (ikus 1. irudia, Whitneyen eta Trosten-Bloomen [2010, 6. or.] lanetik egi-leok egokitua).



1. irudia. Arakatze Apreziatiboaren 4D zikloa.

Jabetze fasea zabala eta kooperatiboa da eta komunitatearen alderdi onena deskribitu, deskribatu eta balioan jartzean datza, hala nola, praktika onak, jarduera eredu-garriak, komunitate kideen ezagutza, eta abar. Ameste fasea komunitatea zer izan litekeen imajinatzean datza, esperantzak mahai gaineratuz eta aukera onenak aurreikusiz. Ameste fasea praktikoa eta sortzailea da aldi berean. Komunitatearen oinarri positiboa handitzen du, *status quo*a zalantzan jarriz eta partaideei etorkizun baliotsu eta biziagoak irudikatzen lagunduz. Diseinatu fasea, berriz, proposizio probokatzaileak egitean datza, zeinetan erakunde edo komunitate ideala ala «izan beharko lukeena» diseinatzeko den. Azkenik, Eraikitze fasea daukagu, banaka zein kolektiboki hartzen diren konpromiso eta aurrerabideetan zentratzen dena. e5 proiektuan ere 4D zikloa jarraitu zen, hurrengo atalean azalduko den moduan.

3. E5 EGITASMOA EGIKARITZEA


Atal honetan e5 egitasmoa nola egikaritu zen azalduko dugu. Lehendabizi, egitasmoaren lau faseak azalduko ditugu, eta ondoren, egitasmoaren emaitzen adibide batzuk erakutsiko ditugu.

3.1. 4D zikloa

e5 proiektua Appreciative Inquiry Summit edo Arakatze Apreziatiboaren goi bilera formatua jarraituz burutu zen. Whitneyen eta Troston-Bloomen esanetan (2010), goi bilerotan bi eta lau egun bitartez pertsona talde handi batek aldi berean hartzen du parte Arakatze Apreziatiboaren oinarri den 4D zikloan. Partaideen artean aniztasuna eta inklusibitatea lehenesten diren aldagaiak izanik, prozesuan alderdi interesdun guztiek batzeko ahalegina burutzen da. e5 egitasmoaren kasuan goi bilerok hiru bat

orduko iraupeneko hiru mintegi eta itxierako kongresu batean egikaritu ziren. Lan saio guztiak Gasteizen egin ziren urte eta erdiko epean (1. mintegia 2017ko ekainaren 2an, 2. mintegia 2018ko otsailaren 23an, 3. mintegia 2018ko ekainaren 8an eta itxiera kongresua 2018ko urriaren 19an). Mintegiotan guztira 289 pertsonak hartu zuten parte, batzuk modu jarraituan prozesu osoan zehar eta beste batzuk modu puntualagoan. Horrela, hogeita hamahiru kide (% 18,2) hiru saioetan aritu ziren, berrogeita bi (% 23,2) bi saiotan, eta ehun eta sei (% 58,6) saio bakarrean. Guzti horietatik, emakumeen portzentaia % 45ekoa izan zen eta gizonezkoena % 55ekoa. Adina dela eta, hogeita hamar urtez beherako gazteak parte hartzaile guztien % 21,2 izan ziren. Jatorriari dagokionez, arrabarrak izan ziren % 22,5, bizkaitarrak % 20,8, gipuzkoarrak % 34,9, Ipar Euskal Herrikoak % 3,8, nafarrak % 8,3 eta jatorria zehaztu ez zutenak % 9,7. Gizarte esparruei dagokienez, arlo eta erakunde askotariko agente ezberdinak hurbildu ziren mintegietara: parte hartu zutenen artean % 11,4 euskalgintzan diharduten eragileak izan ziren, % 16,3 administrazioko hizkuntza politikako arduradunak eta teknikariak, % 20,7 arlo sozioekonomikoan diharduten aholkularitzetako eta enpresetako kideak, % 18,3 fundazio eta elkarte ezberdinetako kideak, % 19,9 unibertsitateko irakasle eta ikerlariak, % 4,5 komunikabideetan dihardutenak eta herritar soilak, % 3,7. Edonola ere, guztiak maila pertsonalean hartu zuten parte, ez entitateen ordezkari moduan.

e5 proiektuan Arakatzeko Apreziatiboaren lau faseak hizkuntza komunitatearen kapitalak eta aktiboak aztertzerako bideratu ziren. Hala, jabetze fasean euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo kapital eta aktiboen analisia burutu zen, 2.2. atalean zerrendatu ditugun sei kapital motak oinarri hartuta: giza kapitala, soziala, kulturala, politikoa, azpi-egiturazkoa eta ekonomikoa (ikus 2. irudia behean). Giza kapitalak, modu orokorrean, komunitateko kideen trebetasunak eta ezagutzak biltzen ditu; eta komunitateetik kanpoko baliabideak eta jakintza ezagutzeko eta bereganatzeko gaitasuna ere sartzen dira kapital mota honetan. Giza kapitalen adibide izan litezke, adibidez, hizkuntza menperatzen duten eta hizkuntzarekiko atxikimendua daukaten hiztunak edo lidergotzarako komunitateko kideen gaitasuna. Kapital soziala jendeartean eta erakundeen arteko saretze gaitasunari dagokio. Komunitatearen kohesioa bultzatzen duten baliabideak sartzen dira kapital mota honetan; adibidez, belaunaldien artean ezagutzak eta trebetasunak lantzeko egitasmoak. Azpiegitura kapitalak komunitatea sostengatzen duten egiturekin du zerikusia. Telekomunikazioak edo industriarako edo hedabideentzako parkeak izan daitezke kapital mota honi dagokion adibideak. Kapital ekonomikoa, bere aldetik, komunitatearen garapenaren zerbitzura jartzeko eskuragarri dauden baliabide ekonomikoei egiten die erreferentzia. Esaterako, euskarazko bideo jokoaren sorkuntzara bideratutako proiektuak finantzatzeko ahalmen ekonomikoa. Kapital politikoa komunitateak boterea bereganatzeko edo komunitatean eragiteko gaitasuna adierazten du. Euskararen komunitateak daukan lege babesa edo erakundetze maila izan daitezke kapital honetako aktiboetako batzuk. Azkenik, kapital kulturalak komunitateak mundua ezagutzeko garatu dituen baliabideak biltzen ditu. Askotariko elementuek komunitatean daukaten balioa eta tratamendua biltzen du; adibidez, ondarea, belaunaldien arteko loturak, sorkuntza eta berrikuntza.



2. irudia. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalak.

Arakatzeko Apreziatiboak aldarrikatzen duen iraultza positiboaren filosofiarekin bat eginez, 4D zikloaren fase bakoitza galdera apreziatibo ala baikor batekin abiatu zen, metodologia honek aditzera ematen baitu erakundeak zein komunitateak haien buruz egiten dituzten galderen norabidean mugitzen direla. Hala, galderak zenbat eta baikorragoak izan, erantzunak ere are itxaropentsuagoak eta positiboagoak izango direla baieztatzen da (Cooperrider & Whitney, 2005). 1. taulan jaso ditugu fase bakoitzaren gaineko xehetasunak: antolatutako tailerrak, helburuak eta oinarri hartutako galdera apreziatiboak.

1. taula. 4D zikloa e5 egitasmoan

Fasea	Helburua	Galdera apreziatiboa
1 JABETZE FASEA Tailer apreziatiboa	Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa sortu	Zeintzuk dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak komunitate kapital bakoitzean egun dituen aktibo nagusiak?
2 AMESTE FASEA Sorkuntza tailerra	Etorkizuneko eszenarioen konstelazioa irudikatu	Zure ikuspegi eta ametsaren arabera, zeintzuk, nolakoak, zenbatekoak dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak kapital bakoitzean 2040. urtean eduki behar dituen aktibo nagusiak?
3 DISEINU FASEA Diseinu tailerra	Etorkizuneko eszenarioetara heltzeko bide-orria diseinatu	2040. urterako irudikatutako kapitalen (aktiboen) konstelazioa eraikitzeko, zein ekinbide gako definitu ditzakegu?
4 ERAIKITZE FASEA Itxiera kongresua	e5 Adierazpena: arkitektura estrategikorako ezagutza eta praktika mailako ekarpenak eta geroko eraikuntzarako ondorioak eta proposamenak burutu	

Hala, Jabetze fasean antolatutako tailer apreziatiboan, euskaraz garatu nahi duen euskal komunitateak dauzkan kapitalen diagnostikoa egin zen. Horretarako, Arakatzeko Apreziatiboaren ikuspegi positiboarekin bat eginez, galdera hau egin zitzaion parte hartzaileei: «zeintzuk dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak kapital bakoitzean egun dituen aktibo nagusiak?». Tailerraren ondoren identifikatutako aktiboen artean hizkuntza komunitatearen garapenerako garrantzitsuenak izan daitezkeenak zehazteko, delphi galdetegi bat ere bidali zitzaion parte hartzaileei.

Ameste faseari dagokion sorkuntza tailerrean, eta komunitatearen egungo kapitalen diagnosian oinarrituta, etorkizunerako amestutako eszenatokiak irudikatu ziren kapital bakoitzarentzat. Kapitalen eszenatoki horiek konstelazio gisa irudikatu ziren, eta ez aurrez adostutako eszenatokien sistema itxi moduan. Edonola ere, komeni da gogoratzeko etorkizuneko eszenatokiak irudikatzen orduan kapitalen arabera sailkapena ez zela izan bere horretan e5 egitasmoaren xedea, baizik eta komunitatearen askotariko baliabideak modu antolatuan irudikatzen bitarteko bat. Zehazki, bigarren tailerreko jarduerak bideratzeko, galdera honi erantzuteko eskatu zitzaion parte hartzaileei: «zure ikuspegi eta ametsaren arabera, zeintzuk, nolakoak edota zenbatekoak dira euskaraz garatu nahi duen komunitateak kapital bakoitzean 2040. urtean eduki behar dituen aktibo nagusiak?». Aurrez aipatu dugun bezala, partaideei ez zitzaion eskatu ados jartzeko etorkizuneko eszenatokietan, baizik eta asmoa zen parte hartzaile bakoitzak berea proposatzea eta azaltzea, horrela eszenatoki posibleen konstelazioak agerraraziz. Izan ere, egitasmoa aurretik aipatutako hiru indar ideiatan oinarritu zen bere diseinutik: konplexutasuna (egungo gizartea errealitate sistemikoa eta konplexua da); polizentrismoa (gizarte indarrak askotarikoak eta polizentrikoak dira); eta sinkronizazioa (polizentrismoaren konplexutasunean bateratasun uniformeak baino heterogenitateen sinkronizazioak har dezake balio handiagoa).

Diseinu faseari lotutako tailerrean, desiratutako eszenario horietara iristeko bide-orriaren arkitektura landu zen, bertara iristeko ekinbide gakoak zehaztuz. Kapital ez garatu, 2040. urterako desiratutako eszenatokien konstelazio horretara iristeko bide-orriak eraiki ziren, alegia, parte hartzaileei eskatu zitzaion proposatzeko zer-nolako ekinbideak behar diren etorkizuneko eszenatokietara iristeko. Hauexek izan ziren parte hartzaileei egindako galderak: «2040. urterako irudikatutako kapitalen konstelazioa eraikitzen, zein ekinbide gako definitu ditzakegu? Zein gaitasun landu behar dira ekinbide hori garatzeko? Ze inpaktu potentzial eduki dezake ekinbide horrek komunitatearen gainerako kapitalen garapenean? Gainontzeko aktibo edo kapitaletan zer landu behar da ekinbide hori garatzeko?».

Azkenik, Eraikitze fasean prozesuari itxiera eman zitzaion kongresu formatuan. Bertan, e5 dinamikan zehar landutako proposamen nagusiak laburbiltzen zituen «e5 adierazpena» (Eusko Ikaskuntza, 2018d) jendaurrean aurkeztu eta sinatu zuten kongresura agertutako ehun lagunetik gorak. Adierazpen honen xedea euskalgintzako askotariko erakundeentzat bide orri bat proposatzea izan zen, amestutako eszenatokiak eraikiz joateko. Aldi berean, kongresuan zehar hainbat adituk eta arituk haien ekarpenak burutu zituzten kapitalez kapital amestutako eszenatokietara iristeko proposamenak eta hausnarketa pertsonalak aurkeztuz (Eusko Ikaskuntza, 2019).



3. irudia. Etorkizunerako amestutako eszenatokiaren irudikapena eskulan sortzaileen bidez (Eusko Ikaskuntza, d. g.).

Esan beharra dago 4D zikloa aurrera eramateko askotariko baliabideak eta metodologiak erabili zirela. Hiru tailerretan, adibidez, parte hartzaileak bospasei laguneko mahietan antolatu ziren lana burutzeko eta mahai bakoitzeko ekarpenak talde osoaren aurrean partekatu zituzten gero. Mahai bakoitzean dinamizatzaile bat arduratu zen zeregina azaltzeaz eta hitz hartzeak modu orekatuan egin zitezten. Prozesuari jarraikortasuna emateko, partaideak aurreko mintegietan ateratako ekarpenak eskuragarri izan zituzten uneoro. Ekarpenak biltzeko euskarri ezberdinak erabili ziren: oharrak, *post-it*ak, horma irudiak, zein bestelako «eskulan sortzaileak» (ikus 3. irudiko adibidea).

3.2. Sortutako emaitzen adibide bat


4D zikloak izaera ezberdineko emaitzak eskaini zituen. Tailerretan irudikapen grafikoak eta espazialak eta horietatik eratorritako Mapak izan ziren sortutako produktuak. Horrela, Tailer Apreziatibo gisa burutu zen lehen tailerraren emaitza komunitate kapital bakoitzeko Egungo Aktiboen Mapa izan zen (Eusko Ikaskuntza, 2017), Sorkuntza Tailer gisa gauzatu zen bigarren tailerraren emaitza Etorkizuneko Eszenarioen Konstelazioen Mapak (Eusko Ikaskuntza, 2018b), Diseinu Tailer moduan antolatutako hirugarrenaren emaitzak Konstelazioak Eraikitzeko Ekinbide Gakoen Mapa (Eusko Ikaskuntza, 2018c). Azkenik, Kongresuaren eguneko laugarren mintegian e5 Adierazpena (Eusko Ikaskuntza, 2018d) taxutu eta sinatu zen, gero Liburu Zurian jasotzeko. Artikulu honetan ez daukagu tokirik mapetan eta adierazpenean agertutako ideiak zehaztasunez azaltzeko. Hala, hurrengo azpi-ataletan, giza kapitalaren baitan identifikatutako portaera aktiboen inguruan sortutako edukiak izango dira hizpide fasez fase, egitasmoaren emaitzen erakusgarri izango direlakoan.

3.2.1. *Jabetze fasea: euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboak*

Aurreko atalean aipatu den moduan, jabetze faseko tailer apreziatiboan diagnostiko bat egin zen, kapitalez kapital, euskararen komunitateak egun eskura dauzkan aktiboak identifikatzeko. Giza kapitalaren baitan aktibo desberdinak identifikatu ziren, besteak beste: herritarren euskararekiko atxikimendua badagoela, belaunaldi gazteen euskara ezagutza inoiz eta handiena dela, euskara egunerokoan erabili ez arren hitz egiteko zein ulertzeko gai den pertsona kopuru handia, euskal gizartera bildu diren etorkin multzoa, eta euskararekiko jarrera aktiboa eta militantea duten herritarrak egotea. Aipatzekoa da azken aktibo horrek indar handia bereganatu zuela tailerretan. Gainera, hiltun profil hori eremu ezberdinetan aurkitzen dela azpimarratu zuten partaideek –hiltun berrien artean, euskalgintzako profesionalen artean, euskalgintzatik kanpoko lanbideetan, eta abar– eta komunitatearen aktibo gisa bide berriak jorratzeko aukera ugari sortzen dituela; adibidez, euskara eremu berrietara zabaltzeko, ingurukoaren artean motibazioa eta ahalduz kolektiboa sustatzeko, euskal kultura kontsumitzaile moduan, etab.

3.2.2. *Ameste fasea: etorkizuneko eszenarioen konstelazioa*

Ameste faseari dagokion sorkuntza tailerretan, portaera aktiboen alorrean partaideek 2040. urterako euskaldunen gehiengoa «ahobiziaz», «euskoherentea» eta «euskalduna» zela amestu zuten partaideek. Honelako baieztapenekin irudikatu zuten errealitatea: euskaraz jarduteko «komunikazio-gaitasun osoa eta bizia duen euskaldun multzo handia dago» eta «konplexurik gabe erabiltzen dute euskara», «sare informalean euskara dute gizarte arau nagusia», «pentsamendu eleanitza eta irekia dute», «Euskal Herriko kultura ezagutzen dute», «ezagutza soziolinguistiko zabala dute», «euskarari eusteko asertibotasuna eta enpatia lantzen dute», «naturarekiko errespetua eta beste herriekiko elkartasuna adierazten dute» (ikus 4. irudia).



4. irudia. Giza kapitalean amestutako etorkizuneko aktibo nagusiak.

3.2.3. Diseinu fasea: irudikatutako etorkizuneko eszenarioetara iristeko bide orria

3.1. atalean aurreratu dugun moduan, diseinu tailerrean, amestutako eszenarioetara iristeko hiru eginkizun eskatu zitzaizkien parte hartzaileei: lehendabizikoa, eszenariotara heltzeko ekinbide zehatzak proposatzea; bigarrena, ekinbideok gainontzeko aktibotan izango luketen inpaktua aurreikustea eta hirugarrena, ekinbideok garatzeko landu beharreko gaitasunak zehaztea. Giza kapitalean bildutako aktiboei dagokienez, guztira 19 ekinbide zehatz bildu ziren. Herritar euskoherente eta euskahaldunak lortzeko ekinbideen baitan, hezkuntza arautuan ezagutza sozilinguistikoa lanketa modu esplizituan txertatzea proposatu zen, besteak beste. Partaideen esanetan, ekinbide horrek hainbat balizko inpaktu izango lituzke; adibidez, hizkuntza hautuen aurrean norbere erabakiak modu kontziente eta sendoagoan hartuko lituzketen ahobizi profileko hitzunak ugaritzea. Ekinbide hori gauzatu ahal izateko, komunitatearen bestelako aktiboetan eragitea funtsezkoa litzateke partaideen esanetan, esate baterako, hezkuntza arautuaren legedian, irakasleen prestakuntzan, ikasmaterialeen sorkuntzan, zein hori dena bideragarri egiteko baliabide ekonomikoetan.

3.2.4. Eraikitze fasea: arkitektura estrategikorako ekinbide gakoak

Eraikitze faseko Kongresuko ekitaldian etorkizuneko desiratutako euskal komunitatea eraikitze hainbat hausnarketa eta praktika mailako ekinbide aurkeztu ziren. Portaera aktiboei begirako jarduna honela laburbildu zen e5 adierazpenean: «euskara hedatzearekin batera hizkuntzaren balioen kontzientzia garatzea, hitzunaren atxikimendua eta jarrera aktiboa eragiteko». Bestalde, Joan Mari Larrartek eta Paula Kasaresek giza kapitala oinarri hartuta haien ekarpen pertsonala burutu zuten itxiera kongresuan. Ekarpenotan, Joan Mari Larrartek modu honetan laburbildu zuen 2040. urteko Euskal Herria, e5 dinamikan partaideek adierazitakoak aintzat hartuta:

2040rako jomuga horretan identitate eta nortasun ugariko Euskal Herria irudikatu da, hizkuntza ugaritan bizi den jendeak osatutako Euskal Herria, non euskaldunek euren izaerari harrotasunez eutsiko dioten eta beste kulturetatik etorritakoek sentituko duten euskal komunitateko kide izateko euskara dela biderik egokiena eta eraginkorrena. Euskal identitatea euskaraz oinarritutakoa izango da, gizarteko eremu guztietan onartua, horretarako inork bere identitate pertsonala alboratu beharrik izan gabe (Larrarte, 2019, 283. or.).

Euskal Herri hori errealtate bilakatzeko osotasunak abiapuntu izan behar zuela azpimarratu zuen Larrartek, eta ikuspegi oso hori oinarri hartuta ekinbide ugari proposatu zituen (Larrarte, 2019). Bere aldetik, Paula Kasaresek gazteengan jarri zuen fokua. Bere aburuz, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen etorkizuna gaurko gazteek, biharko heldu eleaniztunek, euskararen aldeko hautua egitean datza. Hala, Kasaresen hitzak geurera ekarriz, «egungo neska-mutikoen euskarazko sozializazio baldintzak ahalik eta onenak, askotarikoak, trinkoenak izatea dugu erronka, euskararekin harreman sakona eta atsegina, gozamenezkoa eta asebetegarria izan dezaten. Bertze hizkuntzak jakinik ere euskara bere jo eta hauta dezaten» (2019, 278. or.).

4. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK


Artikuluaz azaldu dugun moduan, e5 Eusko Ikaskuntzaren eraberritze prozesuaren eta Mendeurrenaren baitan garatutako proiektua izan da. Duela ehun urte Eusko Ikaskuntzak bere sorreran egin antzera, oraingoan ere, euskalgintzaren krisi aktibo eta hausnarketa zabaleko testuinguruan, erakundeak ekarpena egin nahi izan du euskararen gizarte errealitatearen irakurketan sakontzeko, komunitatean oinarritutako marko interpretatibo berria landuz. Artikuluaz zehar erakutsi dugu proiektuak bi ziklo izan zituela: lehena, ko-eraikitze eta diseinu fasea, talde eragilean burutu zena; eta, bigarrena, gauzatze fasea, tailer partehartzaileetan garatu zena.

Proposamenaren balidazioari garrantzia eman zitzaion, eta, horregatik, bigarren zikloko tailerretan parte hartu zuten eragileekin kontrastea egin eta euren balorazioak bildu ziren lehen eta bigarren tailerretan. Balorazioak positiboak izan ziren, bai jasotako puntuazio kuantitatiboetan zein ekarpen kualitatiboetan. Hala, 1 eta 5 bitarteko eskala baten batezbestekoan, horrela baloratu zituzten partaideek ondoko aspektuak: proiektuaren ulermen maila 3,5 lehen mintegian eta 4,2 bigarrenean; proiektuaren ego-kitasuna 3,6 eta 4,2, hurrenez hurren; eta proiektua bultzatzeko merezimendua 4,5 lehen tailerrean eta 4,6 bigarrenean. Balorazio kualitatiboetan, proiektuaren balio edota ekarpen nagusiak azaltzerakoan, partaideek lau ideia nagusi azpimarratu zituzten: lehenik eta behin, proiektuak zekarren berrikuntza planteamenduan, teorizazioan eta metodologian; bigarrenik, proiektuaren oinarritzko indar ideien balioa; hirugarrenik, indarguneetan oinarritutako eredu positiboa; eta azkenik, proiektuaren izaera sistemikoa eta irekia.

Finkatutako helburuei gagozkiolarik, proiektuak bi emaitza mota izan zituen. Lehena, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen oraina eta etorkizuna eraikitzeko eredu teoriko-metodologiko berri bat proposatzea; eta bigarrena, prozesuan zehar parte hartu zuten pertsona eta eragileak euskaraz garatu nahi duen komunitate gisa irudikatutako etorkizuneko eszenarioen eta hauetara heltzeko komunitate-kapitalean eragiteko marraztutako bide orrien mapak, alegia, tailerretan sortutako edukiak eta diseinuak.

Azken honi dagokionean, prozesuan zehar bideratutakoak kontzeptualki bat egiten du *Reclaiming Basque* liburuan Jacquie Urla (2012) antropologoak adierazten duenaren, hizkuntza biziberritzeko mugimenduak eta eragileak gizarte mailako aldaketa eragileak ere badirela dionean. Ildo horretan, mintegietan eta azken kongresuan mahaigaineratutako ideiak aintzat hartuta, iradoki daiteke e5 proiektuaren prozesuan jazotakoak eta sortutakoak baduela Urlak (2019) proiektuaren itxialdi kongresuan hizpide izan zuen «transition activists and designers»-etik. Urlaren hitzetan, trantsizioaren diskurtsoak eta mugimenduek beste errealitate batzuen irudimen kolektiboa eta beste balore batzuk eskatzen dituzte, ezingo baita hizkuntza txikienezko lekuri aurkitu hizkuntzari buruz pentsatzeko modu nagusien aldaketa ontologiko/epistemikorik gabe; horrela, trantsizioaren diseinuak hizkuntzaren ikuspegi pluralista eta hiztunean (komunitatean) zentratutakoa eta euskara eta euskaraz bizitzeko modu desberdinak onartzeko gaitasuna izan beharko du.

Bide horretan, e5 proiektuak garatutako eredu teoriko-metodologikoak euskararen gizarte errealitatearen irakurketan (trantsizioan) sakontzeko marko interpretatibo berria eskaini digu. Eredu honek enfoke aldaketa dakar euskararen biziberritzearen egoeraren analisiak eta etorkizuneko proiektzioak egiteko moldeetan, nagusiki bi aspektutan: 1) egoeraren analisiaren eta etorkizuneko erronken definizioaren subjektua eta fokua ez da hizkuntza bera, hizkuntza horrekiko erreferentzialtasuna duen komunitatea baizik (hizkuntza horretan garatu nahi duen komunitatea), eta 2) etorkizuneko proiektzioen analisiak ez dira arazoetatik abiatzen, komunitate-kapital ezberdinetan komunitateak dituen aktiboetatik baizik, aktibo berriak sortzeko eta komunitate-kapital horiek indartzeko perspektiban, beti ere ikuspegi apreziatiboan oinarrituta. Horrela, lehendik ezagunak diren Arakatzeko Apreziatiboaren eta aktiboetan oinarritutako komunitatearen garapeneraren ereduaren erreferentziak jaso eta elkartu dira euskararen alorrean aplikatzeko, eta hortik eraiki da marko interpretatibo-metodologiko berria. Artikuluan zehar zehaztu dugun marko berri horri *KOHiKoGa Eredua* deitzea proposatu nahi genuke, hau da, Kapitalean Oinarritutako Hizkuntz Komunitatearen Garapenerako Eredua (ikus 5. irudia).



5. irudia. KOHiKoGa Eredua.

Proiektuaren oinarritzko indar-ideiak diren konplexutasuna, polizentrismoa eta sinkronizazioarekin bat eginez, KOHiKoGa Ereduaren xedea hizkuntz normalakuntzarako gizarte esku-hartzearen alorreko ezagutza metodologikoaren kutxan aktibo berria eskaintzea da, lehendik dauden aukerentzat osagarria izan daitekeena ezagutza kapitala handitzeko. e5 egitasmoak erakutsi digu jabetze fasean zehar komunitatearen kapital eta aktiboak identifikatzeko egiten den mapeoak potentzial handia izan dezakeela hizkuntza komunitateak etorkizunari begira amestu ditzakeen askotariko eszenarioak eraikitzeko. Fase hau komunitatearen garapenerako potentzialak azalarazteko baliabide oso baliagarria dela uste dugu. Aldi berean, kapitalen eta aktiboen artean loturak eraikitzen saiatzeak hizkuntza komunitatearen ikuspegi holistikoa lantzerako bultzatzen ditu parte hartzaileak, eragileen arteko askotariko eta elkarrekintzak sustatuz.

Bestalde, KOHiKoGa Eredua euskaraz garatu nahi duen komunitatean fokalizatzeak ez du esan nahi hizkuntza plangintzaren literaturan ohiko osagaitzat jo diren elementuak bazterrean laga behar direnik: corpusaren plangintza, estatusarena, jabekuntzarena, erabilerarena edota prestigioarena. Aitzitik, osagai horien guztien plangintzak hizkuntza komunitatearen garapenaren baitan hartzen du zentzua (Manterola, 2020; McCarty, 2018): osagai horiek planifikatzeak komunitatearen garapena bultzatzen dezake, baina aldi berean, komunitatearen aktibo eta kapitalak garatu ahala lortzen da osagai horien guztien plangintzak onurak ekartzea komunitatearentzat. Zentzu honetan, KOHiKoGa Ereduak badauka antza komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintzarekin (ingelesezko CBLP edo Community-Based Language Planning). Tokian tokiko komunitate batek hizkuntzaren biziberritzea bere gain hartzen duenean, zentzu heretsian hizkuntzari egiten zaion onuraz harago, maila askotako garapena lortzen da komunitatearentzat: belaunaldien arteko loturak sendotzen dira, kultur nortasuna garatzen da eta komunitatearen ongizatea eta hizkuntza eskubideak indartzen laguntzen du (Idiazabal, 2017; McCarty, 2018). Honetxegatik nabarmentzen da komunitateetatik abiatutako hizkuntza biziberritze egitasmoek ikuspegi sistemikoa edo holistikoa izan ohi dutela. Hodges-ek eta Prys-ek (2019) Galesen egindako ikerketak ere tokian-tokiko eragileen garrantzia azpimarratzen du. Lan honetan Galeseko tokian-tokiko sei hiritan gobernua galeseraren erabilera sustatzeko plangintzen gauzatzea ikertu da eta, egileek azpimarratzen dutenez, tokian-tokiko eragileek euren kabuz eta euren gain zenbat eta modu sendoagoan hartu hizkuntzaren sustapenaren ardura, orduan eta gehiago sendotzen da galesaren erabilera.

Artikuluaz azaldu dugun moduan, e5 egitasmoa Euskal Herria bere osotasunean hartu eta maila sistemiko horretan kokatu eta ardaztu zen, geografikoki edo soziofuntzionalki beste zehaztapen gehiagorik egin gabe. Horrek hausnarketan ikuspuntuak aberastu zituen, baina, aldi berean, zehaztapenetara iristeko aukerak ere zaildu egin zituen. Bestalde, proiektu honen xedea ez zen izan amestutako eszenatokietara iristeko ekinbideak aurrera eramatea, batetik, proiektuak ez zuelako horretarako ahalmenik eta, bestetik, ez delako hori Eusko Ikaskuntzaren egitekoa. Hau kontuan izanda, uste dugu KOHiKoGa Eredua bereziki interesgarria izan daitekeela tokian-tokiko errealitateetan edota maila mikroko erakundeetan euskararen biziberritze prozesuari bultzada emateko sortzen diren plangintzarako eta egitasmoetarako, hau da, eraikitze fasea egikaritzeko ahalmena izango duten berezko gune naturalak. Buruan dauzkagu, batetik, hiri edo herri mailako egitasmoak, eta, bestetik, ikastetxe, enpresa, kirol edo kultur elkarte mailako egitasmoak. Aurrera begirako hipotesia da maila mikrogoan gauzatuta, KOHiKoGa Ereduaren eraikitze fasea gauzatzea egingarria eta eraginkorra izan daitekeela. Honez gain, «ohiko» euskalgintzako eragileez harago, komunitatearen askotariko esparruetan diharduten eragileen parte hartzea lortzea funtsezkoa da. Ziurrenik, e5 egitasmoan modu partzialean erdietsi zen helburu hau. Maila mikrogoan egitasmoetan «ohiko» euskalgintzako kideak zein hizkuntza komunitateko kide «soilak» elkartzuz gero, uste dugu KOHiKoGa Ereduak balio dezakeela komunitatea euskaraz garatzeko berritzaileak izan daitezkeen sinergiak sortzeko eta ekinbideak gauzatzeko.

5. ERREFERENTZIAK

- Beaulieu, L. J. (2014). *Promoting vitality & sustainability. The Community Capitals Framework*. Purdue University, Center for Regional Development. <https://pcrd.purdue.edu/wp-content/uploads/2020/09/Community-Capitals-Framework-Writeup-Oct-2014.pdf>
- Brenner, W. & Uebernickel, F. (arg.). (2016). *Design thinking for innovation. Research and practice*. Springer International Publishing.
- Brown, T. & Wyatt, J. (2010). Design thinking for social innovation. *Stanford Social Innovation Review*, 8(1), 30-35.
- Cooperrider, D. L. & Whitney, D. (2005). *Appreciative inquiry. A positive revolution in change*. Berrett-Koehler Publishers.
- Emery, M., Fey, S. & Flora, C. (2006). Using community capitals to develop assets for positive community change. *CD Practice, Promoting Principles of Good Practice*, 13, 1-19. <http://srdc.msstate.edu/fop/levelthree/trainarc/socialcapital/communitycapitalstodevelopassets-emeryfeyflora2006.pdf>
- Emery, M. & Flora, C. (2006). Spiraling-up: Mapping community transformation with community capitals framework. *Community Development: Journal of the Community Development Society*, 37(1), 19-35. <https://doi.org/10.1080/15575330609490152>
- Eusko Ikaskuntza. (2017). *Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboaren mapa. e5 proiektuko 1. mintegiko eta delphiko emaitzak. Geroa Elkar-Ekin*. Eusko Ikaskuntza. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/e5_Egungo_Aktiboaren_Mapa_01.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (2018a). *Euskaldunon Mendea, 1918-2018. Eusko Ikaskuntza 100 urte*. Eusko Ikaskuntza.
- Eusko Ikaskuntza. (2018b). *Etorkizunerako irudikatutako komunitatearen kapitalen eszenarioen konstelazioa. 2040ko jomugan irudikatutako aktibo nagusiak. e5 proiektuko 2. mintegiko emaitzak. Geroa Elkar-Ekin*. Eusko Ikaskuntza. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/e5_Etorkizuneko_Eszenarioen_Konstelazioa_02.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (2018c). *2040 urterako irudikatutako kapitalen (aktiboaren) konstelazioak eraikitzeke ekibide gakoaren mapa. e5 proiektuko 3. mintegiko emaitzak. Geroa Elkar-Ekin*. Eusko Ikaskuntza. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/e5_Ekinbide_Gakoaren_Mapak_03.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (2018d). *Geroa Elkar-Ekin. El futuro que nos(re)une. Notre futur ensemble. Liburu Zuriaren Oinarriak*. Eusko Ikaskuntza. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/argitalpenak/Liburu_Zuriaren_oinarriak.pdf
- Eusko Ikaskuntza. (2019). *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin. Mendurren Kongresua*. Eusko Ikaskuntza. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/congresos/18/Eusko%20Ikaskuntzaren%20XVIII%20kongresua.pdf>
- Eusko Ikaskuntza. (d. g.). Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen. Eusko Ikaskuntza. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/proiektuak/euskararen-etorkizuneko-eszenarioak-elkarrekin-eraikitzen/pr-4/>

- Ferguson, R. F. & Dickens, W. T. (arg.). (1999). *Urban problems and community development*. Brookings Institution Press.
- Flora, C. & Flora, J. (2008). *Rural communities: Legacy and change* (3. arg.). Westview Press.
- Flora, C., Flora, J. & Fey, S. (2004). *Rural communities: Legacy and change*. Westview Press.
- Green, G. P. & Haines, A. (2007). *Asset building and community development*. Sage.
- Haines, A. (2009). Asset-based community development. In R. Phillips & R. H. Pittman (arg.), *An introduction to community development* (38.-48. or.). Routledge.
- Hernández, J. M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 69, 27-42.
- Hodges, R. & Prys, C. (2019). The community as a language planning crossroads: macro and micro language planning in communities in Wales. *Current Issues in Language Planning*, 20(3), 207-225. <https://doi.org/10.1080/14664208.2018.1495370>.
- IDEO (d. g.). *Design Thinking para educadores*. https://www.educarchile.cl/sites/default/files/2019-10/Design_Thinking_para_Educadores.pdf
- Idiazabal, I. (2017). ¿Qué significa la escuela bilingüe para lenguas minorizadas como el nasa yuwe o el euskera? *Onomázein, Revista de Lingüística, Filología y Traducción*, zenbaki berezia 3, 137-152. <https://doi.org/10.7764/onoma-zein.amerindias.08>.
- Irizar, M. (2019). Euskalgintzaren testuingurua: irakurketa soziopolitiko. In *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin: Mendeurreneko Kongresua* (256.-260. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Jacobs, C. (2011). Measuring success in communities: Understanding the Community Capitals Framework. *Extension Extra. South Dakota State Cooperative Extension Service*, 16005. http://pascalobservatory.org/sites/default/files/capitalsextension_extra.pdf
- Jausoro, N., Martínez de Luna, I. & Davila, A. (1998). Gazte donostiarren hizkuntzekiko harremanak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 27, 51-81.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunetz belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2017). Euskararen transmisioa: berrikuspina hizkuntza-sozializazioaren paradigmatic. In J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (27.-51. or.). UEU.
- Kretzmann, J. P. & McKnight, J. L. (1993). *Building communities from the inside out: A path toward finding and mobilizing a community's assets*. ACTA Publications.
- Larrarte, J. M. (2019). Osotasunean landu ezean, beti herren. In *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin: Mendeurreneko Kongresua* (280.-286. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Manterola, I. (2020). Euskararen komunitatearen garapena e5 egitasmoaren bidez. In X. Artiagoitia, I. Camino, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik*

- Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazo irakaslearen omenez* (497.-509. or.). UPV/EHU.
- Marko, I. (2019). e5 proiektua: zer izan den eta nola egin den. e5 >> e3+L. In *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin: Mendeurreneko Kongresua* (261.-267. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Mattessich, P. & Monsey, M. (2004). *Community building: What makes it work*. Wilder Foundation.
- McCarty, T. L. (2018). Community-based language planning. In L. Hinton, L. Huss & G. Roche (arg.), *The Routledge handbook of language revitalization* (22.-35. or.). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9781315561271-4>
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Ortega, A. & Manterola, I. (argitaratzeaz). 40 años de revitalización del euskera: investigación y cultura lingüística. In E. Eggert & B. Peter (arg.), *Methoden zur Erforschung der Kultur der regionalen Mehrsprachigkeit*. Peter Lang.
- Pagola, R. M. (2018). Argi-ilunak euskarak bizi izan duen menderik emankorrenean. In Eusko Ikaskuntza, *Euskaldunon Mendea, 1918-2018. Eusko Ikaskuntza 100 urte* (176.-201. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Péché, J. P., Mieyeville, F. & Gaultier, R. (2013). Design Thinking: le design en tant que management de projet. *Entreprendre & Innover*, 19, 9-20.
- Rainey, D. V., Robinson, K. L., Allen, I. & Christy, R. D. (2003). Essential forms of capital for sustainable community development. *American Journal of Agricultural Economics*, 85(3), 708-715.
- Talde eragilea. (2017/01/12). *e5 proiektuko talde eragilearen bileraren akta* [Argitaratu gabeko txostena].
- Urla, J. (2012). *Reclaiming Basque: Language, nation and cultural activism*. University of Nevada Press.
- Urla, J. (2019). Towards a 'speaker centered' design of language planning. In Eusko Ikaskuntza, *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Geroa Elkar-Ekin. Mendeurreneko Kongresua*. (370.-377. or.). Eusko Ikaskuntza. <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/congresos/18/Eusko%20Ikaskuntzaren%20XVIII%20kongresua.pdf>
- Urla, J. & Burdick, C. (2018). Counting matters: quantifying the vitality and value of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 252, 73-96. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2018-0015>
- Whitney, D. & Trosten-Bloom, A. (2010). *The power of appreciative inquiry. A practical guide to positive change*. Berret-Koehler Publishers.
- Zarraga, A., Coyos, J. B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L., Urraga, B. & Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra.
- Zuberogoitia, A., Arana, G. & Bidegain, E. (2013). Sormena, berrikuntza eta komunikazio ikasketak: Design Thinking eta Creation Nets metodologiaren aurrerak aztertzen. *Tantak*, 25(1), 85-104.

